

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Kooperatibek eta lan-sozietateek 465.000 eurorainoko diru-laguntzak jaso ahalko dituzte enplegua sustatzeko

Enpresa-mota horiek sortzen eta modernizatzen uzten duten inbertsio-kostuak ordaintzeko erabiliko dira

Lunes, 25 de mayo de 2015

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 465.875 euroko diru-laguntza deialdi bat martxan jarri du Nafarroako lan elkartuko kooperatiba eta lan-sozietateetarako; [laguntza](#) horien helburua, enpresa horien lehiakortasuna hobetzeko eta enpleguaren sorrera sustatzeko inbertsioak diruz laguntzea da.

Deialdiaren oinarriak [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) (maiatzaren 22koa, 98. zenbakia) argitaratuta daude, eta oinarri horietan ezartzen dira zer enpresa-mota izan daitezkeen onuradunak, inbertsioetarako baldintzak, bai eta diru-laguntzen portzentaje nahiz gehieneko zenbatekoak ere.

Zehazki, laguntzak eskuratu ahalko dituzte: lan elkartuko kooperatibek, lan-sozietateek eta lan elkartuko kooperatiben edota lan-sozietateen lankidetzaren proiektuen ondorioz sortutako lan-sozietate eta kooperatibek eta laneko bazkide bat gutxienez dutenek. Kasu guztietan, beren helbide fiskala Nafarroan izan beharko dute eta inbertsioak Foru Komunitatean kokatutako lantokietan egin.

Diru-laguntzaren xede izan ahalko dute maiatzaren 23tik aurrera honako leku hauetan egindako inbertsioek (eta 2015ean ordaindutakoak): lursailetan, eraikuntzetan, instalazio teknikoetan, makinetan, tresnetan, altzarrietan, informazio-prozesurako ekipoetan, garraio-elementuetan, bai eta industria edo merkataritzako ibilgailuetan ere (bi ibilgailu urteko eta enpresako). Halaber, diruz lagundu ahalko dira administrazio-emakidei, industria-jabetzari, merkataritza-funtsari, eskualdatzeko eskubideari eta aplikazio informatikoei lotutako aktiboak ere.

Laguntzen zenbatekoari dagokionez, haiek eskuratu ahal izateko, gutxienez 6.000 euroko inbertsioa egin beharko da, eta 500 euro baino gutxiagoko fakturak ez dira onartuko, sorrera berriko enpresetarako salbu (ekonomia sozialeko enpresa modura kalifikatzeko datatik urtebete baino



Kooperatibek eta Lan Sozietateek inbertsioetarako laguntzak eskuratu ahalko dituzte.

gehiago eratuta ez daudenak), eta haietarako ez da inbertitzeko gutxienekorik izango eta ezta fakturako gutxienekorik ere.

Portzentajeak jadanik eraturako enpresetarako diru-laguntzen % 35 eta sorrera berriko enpresetarako % 45 artean daude. Portzentaje horiek % 5 igoko dira azken 6 hilabeteetan plantilla handitzen bada, lantokia Iruña eta Iruñeritik badago, Moderna Planaren barneko jarduera batean inbertitzen bada, eta lankidetzaproiektu baten ondorioa bada. Nolanahi ere, enpresa bakoitzeko ezingo da 10.000 euro baino diru-laguntza handiagoa izan urtean, eta ezingo du inbertsioaren % 50 gainditu.

Eskaerak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko erregistroan aurkeztuko dira, bereziki (Tomas Caballero parkea, 1, "Fuerte del Príncipe" II eraikina, Iruña), edo legean ezarritako [beste](#) edozein lekutan, aurkeztutako fakturen azken ordainketatik aurrera, hilabeteko epean.